ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN PLEGUA, ORIOKO TOKIKO ZAINTZAKO EKOSISTEMAREN JARDUERA PLANA AHOLKULARITZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO GARATZEKO GENERO IKUSPEGIA TXERTATUTA	PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE ASESORAMIENTO PARA EL DESARROLLO, , DEL PLAN DE ACTUACIÓN DEL ECOSISTEMA DE CUIDADO LOCAL EN ORIO CON INCLUSIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO
I. XEDAPEN OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA **1. KONTRATUAREN XEDEA** Plegu hauetan oinarrituko den kontratuaren helburua honakoa izango da: Orioko zaintza ekosistemaren ekintza-plana garatzeko aholkularitza teknikoa ematea genero ikuspegia txertatuta Orioko Udalari, plegu hauetan zehaztutako baldintzen eta zehaztapenen arabera. CPV nomenklaturaren kodifikazioa, kontratuaren xedeari dagokiona: 79411000-8 Kontratuaren xedea betetzeko baldintza hauek jarraitu beharko dira, kontratuan, plegu hauetan eta Baldintza Teknikoen Agirian adierazitakoak. Agiri horiek guztiek kontratu izaera daukate. Kontratu honen xedea sorta bakar batean dator. **<u>Next Generation EU funtsekin finantzaketa</u>** Agiri honen xede den proiektua bat dator Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren helburu eta lehentasunekin. Beraz, Next Generation EU funtsekin finantzatua izango da, aplikatzekoa den araudian eta dagokion deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen baititu. Esleipendunak konpromisoa hartzen du baldintza-agiri hauen **VI. eranskinean** adierazitako konpromisoak bere gain hartzeko.	**I. ASPECTOS GENERALES Y CONFIGURACIÓN DEL CONTRATO** **1. OBJETO DEL CONTRATO** El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto: asesorar técnicamente al ayuntamiento de Orio para desarrollar el plan de actuación del ecosistema de cuidados local de Orio con inclusión de la perspectiva de género, de acuerdo con las condiciones y especificación de estos pliegos. Codificación de la nomenclatura CPV correspondiente al objeto del contrato: 79411000-8 El cumplimiento del objeto del contrato se ajustará a las condiciones establecidas en el contrato, en los presentes pliegos y en el Pliego de Prescripciones Técnicas. Todos estos documentos tienen carácter contractual. El objeto del presente contrato es un lote único. **<u>Financiación con Fondos Next Generation EU</u>** El proyecto objeto de este pliego se alinea con los objetivos y prioridades del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia. Por tanto, será financiado con fondos Next Generation EU, cumpliendo con los requisitos establecidos en la normativa aplicable y en las bases de la convocatoria correspondiente. La adjudicataria se compromete a asumir los compromisos que se señalan en el **Anexo VI** de estos pliegos.

2. ARAUBIDE JURIDIKOA Egingo den kontratua zerbitzuetako kontratu modura sailkatzen da, eta honako arau eta lege hauen menpe garatuko da: azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena (17 artikulua); 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendua onartzen duena, horrek indarrean dirauen bitartean; maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duena; edo horiek ordezkatuko dituzten erregelamenduzko arauak, eta Administrazio-klausula Partikularren Agiri honetan jasotako klausulak. Espediente arrunta tramitatuko da, kontratua prozedura ireki bidez esleitzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 156 artikuluan xedatutakoaren arabera.	**2. REGIMEN JURIDICO** El contrato que se celebre se clasifica como contrato de servicios y se regirá por la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (artículo 17); el Real Decreto 1098/2001, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, durante su vigencia; el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parte de la Ley 30 de octubre de Contratos del Sector Público o las normas reglamentarias que las sustituyan y las cláusulas contenidas en este Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares. Se tramitará el expediente ordinario para la adjudicación del contrato por el procedimiento abierto, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 156 de la Ley de Contratos del Sector Público.
3. KONTRATAZIO-ORGANOA Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 2. Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, **Alkatetzak** izango du kontratazio hau egiteko ahalmena. Kontratazio-organo horrek du administrazio kontratua esleitzeko ahalmena, eta, horrenbestez, bere eskumenekoak izango dira honakoak ere: kontratua interpretatzea; kontratuan sortzen diren zalantzak argitzea; kontratua aldatzea; eta kontratua amaitzea. Horiek guztiak bat datoz araudi aplikagarriarekin. Horiei buruz hartutako akordioak betearaztekoak izango dira, nahiz eta enpresa esleipendunak eskubidea izango duen akordio horiek jurisdikzio eskudunaren aurrean	**3. ORGANO DE CONTRATACIÓN** De conformidad con lo dispuesto en la 2. Disposición Adicional, de la Ley de Contratos del Sector Público, la **Alcaldía** queda facultada para realizar la presente contratación. Este órgano de contratación tiene la facultad de adjudicar el contrato administrativo, por lo que será de su competencia la interpretación del mismo, la resolución de las dudas que cree el contrato, la modificación del mismo y su resolución. Todos ellos se ajustan a la normativa aplicable. Los acuerdos que se adopten al respecto serán ejecutivos, sin perjuicio del derecho de la empresa adjudicataria a su cumplimiento ante la jurisdicción competente
4. GAITASUNA ETA KAUDIMENA Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna daukaten pertsona fisiko zein juridikoek hartu ahal izango dute parte kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta euren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 71 artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.	**4. CAPACIDAD Y SOLVENCIA** Podrán participar en este procedimiento de contratación las personas físicas o jurídicas, con capacidad de obrar y de derecho, que acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en prohibición de contratar por alguna de las causas señaladas en el artículo 71 de la Ley de Contratos del Sector Público.

Pertsona juridikoak esleipendun izan daitezke, soil-soilik euren prestazioak jardueraren xede, helburu edo arloan sartuta badaude eta euren estatutu edo fundazio arauetan hala jasota badago. Gainera, kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoa den antolakuntza edukiko du (nahikoa langile eta materialekin). Era berean, pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Pertsona juridikoen ordezkariek agiri bidez frogatu beharko dute ordezkari izateko ahalmena dutela. Kasu batean zein bestean, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkio. Prozedura tramitatzen ari den bitartean eta esleipena egin baino lehen enpresa lizitatzailearen nortasun juridikoa amaitzen bada (fusioagatik, zatiketagatik edo bere enpresa-ondarea eskualdatzeagatik), orduan honako hauetako batek hartuko du prozeduran hark zuen lekua: sozietate bereganatzaileak, fusioaren ondorioz sortutakoak, zatiketaren onuradunak edo ondarea bereganatu duenak, baldin eta kontratatzeko gaitasuna izan eta hartarako inolako debekurik ez badu eta sailkapena eta/edo kaudimena duela egiaztatzen badu, betiere esleipen prozeduran parte hartzeko plegu hauetan eskatutako baldintzetan.	Sólo podrán ser adjudicatarias las personas jurídicas cuyas prestaciones estén comprendidas en el objeto, finalidad o materia de la actividad y así lo establezcan sus estatutos o normas fundacionales. Además, dispondrá de la organización necesaria para el correcto cumplimiento del contrato (con personal y material suficiente). Asimismo, las personas físicas o jurídicas podrán contratar por sí mismas o bien mediante representantes autorizados por poder bastanteado. Quienes sean representantes de las personas jurídicas deberán acreditar documentalmente que ostentan la capacidad de representación. En ambos casos, las causas de incapacidad para contratar se aplicarán también a la persona representante. Cuando durante la tramitación del procedimiento y con anterioridad a la adjudicación se extinga la personalidad jurídica de la empresa licitadora por fusión, escisión o transmisión de su patrimonio empresarial, la posición en el procedimiento la asumirá la sociedad absorbente, la resultante de la fusión, la beneficiaria del fraccionamiento o la adquirente del patrimonio, siempre que no esté incursa en prohibición alguna de contratar y acredite su clasificación y/o solvencia en los términos exigidos en los presentes pliegos para participar en el procedimiento de adjudicación.
5. GAUZATZE EPEA Kontratua gauzatzeko epealdia: 2026ko abenduren 31a. Kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik hasiko da kontatzen zerbitzuaren gauzatze epea.	**5. PLAZO DE EJECUCIÓN** Plazo de ejecución del contrato: 31 de diciembre de 2026. El plazo de ejecución del servicio comenzará a contarse desde el día siguiente a la formalización del contrato.
6. LIZITAZIO PREZIOA. BALIO ZENBATETSIA Aurrekontuaren estimazioa, 32.942€koa da (BEZ-ik gabe). Hortaz, estimaturiko kontratuaren balio zenbatetsia, %21a BEZ barne (6.917,82€ BEZ), 39.859,82€koa da. Oharra: Kalkulatzen da, zehaztutako lanak egikaritzeko 768 ordu beharko direla.	**6. PRECIO DE LICITACIÓN. VALOR ESTIMADO** El precio de licitación es de 32.942€ (IVA no incluido). Por tanto, el valor estimado del contrato estimado, 21% IVA incluido (6917,82€ € IVA) es de 39.859,82€ Nota: Se calcula que la ejecución de los trabajos especificados requerirá de 768 horas

7. FINANTZIAZIOA Kontratuaren prezioa ordaintzeko finantzazioa aurreikusita dago udal aurrekontuan. Halaber, Udalak konpromisoa hartu du zerbitzu honek eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere behar adina kreditu jartzeko. Zaintza Ekosistema 0803.226.06.231.70 partidatik.	**7. FINANCIACIÓN** El presupuesto municipal prevé una financiación para el pago del precio del contrato. Asimismo, el Ayuntamiento se compromete a dotar de crédito suficiente a los presupuestos de los ejercicios futuros afectados por este servicio. En la partida ecosistema del cuidado 0803.226.06.231.70.
8. NOLA ORDAINDU Prezioa hilero ordainduko da. Horretarako, enpresa esleipendunak hilero FAKTURA bat aurkeztuko du, egindako lanei dagokiena. Faktura onartu ondoren, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 198 artikuluan jarritako legezko epeetan ordainduko da. Alkatetzak 2013ko urriaren 29ko 1472 Dekretuaren bidez onartu zituen Orioko Udalari faktura elektronikoak bidaltzeko baldintza teknikoak. Bertan adierazitakoaren arabera, faktura elektroniko horiek «Facturae» formatua izan behar dute (horri dagokionez, Udalgidaren web-orrian kontsultatu ahal izango da «Facturae» formatuak une bakoitzean erabilgarri dituen bertsioei buruzko informazioa, Interneteko helbide honetan: www.udalgida.net).	**8. METODO DE PAGO** El precio se abonará mensualmente. Para ello, la empresa adjudicataria presentará mensualmente una FACTURA correspondiente a los trabajos realizados. Una vez aprobada la factura, se abonará en los plazos legales establecidos en el artículo 198 de la Ley de Contratos del Sector Público. La Alcaldía aprobó mediante Decreto 1472, de 29 de octubre de 2013, las condiciones técnicas para el envío de facturas electrónicas al Ayuntamiento de Orio. En el mismo se indica que dichas facturas electrónicas deben tener el formato «Facturae» (la información relativa a las versiones disponibles en cada momento en el formato «Facturae» podrá consultarse en la página web de la Guía Municipal en la dirección de Internet www.udalgida.net.
9. PREZIOAK BERRIKUSTEA Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 103. artikuluarekin bat etorriz, kontratuaren prezioak ez dira berrikusiko.	**9. REVISIÓN DE PRECIOS** De acuerdo con el artículo 103 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, los precios del contrato no serán revisados.
10. BERMEAK Eskaintza ekonomiko onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileak, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 10 egun balioduneko epea izango du berme bat eratzeko, hain zuzen ere, esleipenaren zenbatekoaren % 5ekoa (BEZ gabe). Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 108.1. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan jarri ahalko da berme hori. Bermea dirutan jartzen bada, zenbatekoa Kutxabanken sartuko da ES48 2095/3176/89/1060001376 zenbakiko kontu	**10. GARANTIAS** La empresa licitadora que haya presentado la mejor oferta económica dispondrá de un plazo de 10 días hábiles, contados a partir del día siguiente al del requerimiento, para constituir una garantía del 5% del importe de adjudicación (IVA no incluido). Esta garantía podrá depositarse en cualquiera de las formas previstas en el artículo 108.1 de la Ley de Contratos del Sector Público. Si la garantía se constituyera en metálico, el importe se ingresará en Kutxabank en la cuenta corriente número ES 48

korrontean, eta abonu-agiriaren kopia bat eramango da Diruzaintzara. Horrekin batera kontu korronte baten zenbakia ere aurkeztuko da, bermea itzultzean dirua bertan sartzeko. Bermea osorik edo, halakorik bada, zati bat, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz itzuliko da, berme-epea bukatutakoan eta esleipendunak kontratuko obligazioak bete ondoren.	2095/3176/89/1060001376 y se entregará copia del abonaré a la Tesorería. Se adjuntará un número de cuenta corriente para el ingreso del dinero en el momento de la devolución de la garantía. La devolución total o parcial de la garantía, en su caso, se realizará de conformidad con lo dispuesto en el artículo 111 de la Ley de Contratos del Sector Público, una vez transcurrido el plazo de garantía y cumplidas por la adjudicataria las obligaciones contractuales.
II. KONTRATUAREN ESLEIPENA **11. ESLEITZEKO PROZEDURA** Kontratu hau prozedura ireki bidez esleituko da. Kontratuaren esleipena egiteko honako balorazio irizpideak hartuko dira oinarritzat: 11.1 Formula bidez ebaluatu daitezkeenak -Eskaintza ekonomikoa -Zerbitzua emango duten langileen eskarmentua. -Berdintasunean prestakuntza. 11.2 Formula bidez baloratu ezin direnak -Proiektua **11.1 Formula bidez ebaluatu daitezkeenak: gehienez 51 puntu** **<u>Eskaintza ekonomikoa: gehienez 32 puntu</u>** Puntuaziorik handiena emango zaio eskaintza ekonomikoenari, eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzen da formula honetatik: eskaintza ekonomikorik baxuena zati baloratzen den lizitatzailearen eskaintza, bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa. Hau da: **Pl= Ob/Ol x 32** Pl: lizitatzailearen puntuazioa Ob: eskaintzarik txikiena Ol: lizitatzailearen eskaintza Diru-eskaintzetan egon daitezkeen gehiegizko jaitsierak SPKL-ko 149.4 eta 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Erregelamenduko 85.	**II. ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO** **11. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN** La adjudicación del presente contrato se realizará por procedimiento abierto. La adjudicación del contrato se realizará en base a los siguientes criterios de valoración: 11.1. Evaluables mediante fórmula -Oferta económica -Experiencia del personal que va a prestar el servicio - Formación en igualdad. 11.2. No valorables mediante fórmula -Proyecto **11.1. Evaluables mediante fórmula: hasta 51 puntos** **<u>Oferta económica: hasta 32 puntos</u>** Se otorgará la máxima puntuación a la oferta más económica, obteniéndose la puntuación del resto de propuestas dividiendo la oferta más baja entre la oferta del licitador que se valora, por el número total de puntos aplicables al criterio. Es decir: **Pl= Ob/Ol x 32** Pl: puntuación del licitador Ob: oferta más pequeña Ol: oferta del licitador Los descensos excesivos en las ofertas se valorarán de acuerdo con los criterios fijados en el artículo 85

artikuluan finkaturiko irizpideen arabera baloratuko dira. **<u>Zerbitzua emango duten langileen eskarmentua: 14 puntu gehienez</u>** Zerbitzua emango duen lantaldearen eskarmentuak kontratuaren exekuzioan duen isla eta garrantzia kontuan harturik, Sektore Publikoko Kontratu Legeak bere 145.2.2 artikuluan jasotzen duen aukeraren baitan eskarmentu hori baloratuko da. Zerbitzua emateko lantaldea proposatu beharko da. Esperientzia hori akreditatzen duen enpresako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira C gutunazalean. Ondorengoa izango da baloratuko den esperientzia: -Kasuen kudeaketaren metodologiaren inplementazioan lan egin izana gizarte-zerbitzuen aholkularitza prozesuetan (gutxienez 650h): -650-750 ordu bitartean…… **1 puntu** -750-1.000 ordu bitartean…… **2 puntu** -1.000-tik aurrera…… **5 puntu** -Pertsonen eta komunitateko eragileen aktibismoaren bide komunitate-ehuna sortzeko aholkularitza prozesuetan lan egin izana (gutxienez 650h): -650-750 ordu bitartean…… **1 puntu** -750-1.000 ordu bitartean…… **2 puntu** -1.000-tik aurrera……**4 puntu** -Zaintza zerbitzuen koordinazioa xede duen aholkularitzan prozesuetan lan egin izana -650-750 ordu bitartean…… **1 puntu** -750-1.000 ordu bitartean…… **2 puntu** -1.000-tik aurrera……..5 **puntu** **<u>Zerbitzua emango duten langileen formakuntza berdintasunaren arloan: 5 puntu gehienez</u>**	del Reglamento aprobado por el Real Decreto 149.4 y 1098/2001 de la LCSP**.** **<u>Experiencia del personal que va a prestar el servicio: hasta 14 puntos</u>** Teniendo en cuenta el impacto e importancia de la experiencia del equipo de trabajo que va a prestar el servicio en la ejecución del contrato, se valorará dicha experiencia en el marco de la opción recogida en el artículo 145.2.2 de la Ley de Contratos del Sector Público. Se deberá proponer un equipo de trabajo para la prestación del servicio. En el sobre C deberán presentarse los certificados de la empresa que acredite dicha experiencia. La experiencia a valorar será la siguiente: - Haber trabajado en la implementación de la metodología de gestión de casos en procesos de asesoramiento de servicios sociales (mínimo 650h): -Entre 650-750 horas ……**1 puntos** -Entre 750-1.000 horas ……**2 puntos** -A partir de 1.000 horas ……**5 puntos** -Haber trabajado en procesos de asesoramiento para la creación de tejido comunitario a través del activismo de las personas y los agentes de la comunidad (mínimo 650h): -Entre 650-750 horas ……**1 puntos** -Entre 750-1.000 horas ……**2 puntos** -A partir de 1.000 horas ……**4 puntos** -Haber trabajado en procesos de asesoramiento para la coordinación de los servicios de vigilancia: - Entre 650-750 horas …… **1 puntos** - Entre 750-1.000 horas …… **2 puntos** -A partir de 1.000 horas ……..5 **puntos**

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan 60 ordutik gorako prestakuntza duen pertsona bakoitzeko 2,5 puntu emango dira (18.3 klausulan eskatutakoaz harago). **11.2 Formula bidez ebaluatu ezin direnak: gehienez 49 puntu** Proiektu bat aurkeztu beharko da, eta honek gehienez 50 orrialde (25 orri) izango ditu aurkibidea barne (hortik gorako orriak ez dira puntuatuko) eta jarraian finkatutako egitura jarraitu beharko du. Gutxienez 30 puntuko puntuazioa eskuratu beharko da. - Egin beharreko lanaren deskribapen orokorra, marko teorikoa kontuan hartuz: gehienez 5 puntu - Lan ildo eta ekintzen deskribapena: gehienez 10 puntu - Proiektua aurrera eramateko erabiliko den metodologiaren inguruko deskribapena: gehienez 5 puntu - Ebaluazioaren inguruko azalpena. Ebaluazio proposamena: gehienez 5 puntu - Proiektuan parte hartuko duen lantaldea eta bertako kideek izango duten lan banaketa.: gehienez 5 puntu - Orioko herrira eta orain arte herrian burututako zaintza ereduaren eraikuntzan landutakoari egokitutako proposamena izatea: gehienez 10 puntu - Zehar lerroen inguruko azalpena; espreski genero ikuspegia eta aniztasuna zehar-lerro gisa prozesuan garatuko diren kontuan izatea: gehienez 3 puntu - Proiektu osoan zehar bildutako informazioa jasotzeko sistematizazio proposamena: gehienez 3 puntu - Komunikazioaren nondik norakoak; prozesuan parte hartzen ari direnei zuzendutakoa, kanpo komunikazioa: gehienez 3 puntu. **12. ESKAINTZEN AURKEZPENA** Orioko Udalaren Kontratatzailearen Profilean eta Euskadiko Kontratazio Plataforman aztertu ahal izango dira plegu teknikoak, administrazio-klausula	**<u>Formación del personal que va a prestar el servicio en materia de igualdad: hasta 5 puntos</u>** Se valorará con 2,5 puntos por cada persona que se adscriba al contrato con una formación superior a 60 horas en materia de igualdad entre mujeres y hombres (más allá de lo exigido en la cláusula 18.3). **11.2 No valorables mediante fórmulas: máximo 49 puntos** Se deberá presentar un proyecto que tendrá una extensión máxima de 50 páginas (25 hojas), incluyendo el índice (no se puntuarán las que excedan ese máximo) y tendrá la siguiente estructura. Se deberá obtener una puntuación mínima de 30 puntos. - Descripción general del trabajo a realizar, teniendo en cuenta el marco teórico, hasta 5 puntos. - Descripción de las líneas de trabajo y acciones: hasta 10 puntos - Descripción de la metodología a utilizar para el desarrollo del proyecto: máximo 5 puntos - Explicación de la evaluación. Propuesta de evaluación: máximo 5 puntos - Equipo de trabajo que participará en el proyecto y reparto de tareas entre sus miembros: hasta 5 puntos - Propuesta adaptada al pueblo de Orio y a lo trabajado en la construcción del modelo de cuidados que se ha llevado a cabo hasta el momento: hasta 10 puntos - Descripción de las líneas transversales; consideración expresa de la perspectiva de género y de la diversidad como líneas transversales al proceso: máximo 3 puntos - Propuesta de sistematización de la recogida de información recogida a lo largo de todo el proyecto: hasta 3 puntos - Descripción de la comunicación, dirigida a los participantes en el proceso, comunicación externa: máximo 3 puntos

bereziak eta dokumentazio teknikoa, halakorik balego.

Kontratazio unitatearekin harremanetan jartzeko, helbide honetara joan:

KONTRATAZIO UNITATEA

Aritzaga Kalea 15 - 20810 Orio
Tel: 943 830346
E-maila: gizartebulegoa@orio.eus
Kontratatzailearen profila:
http://www.orio.eus

Proposamenak aurkezteko, soilik bitarteko elektronikoak erabiliko dira, SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarrian jarritako baldintzekin bat etorriz, epe honetan Orioko Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita eta HAMABOST (15) EGUN NATURALEKO epean.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera aldatuko da.

Eskaintzak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatzita aurkeztu beharko dira.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, ezingo du beste batzuekin aldi baterako enpresa-elkartea eratuta beste eskaintzarik aurkeztu, ezta aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan agertu ere.

Lizitatzaileek agiriei edo, egonez gero, dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskatzen badute, informazio hori eskaintzak jasotzeko jarritako epe-mugaren aurreko sei egunen barruan emango zaie, baldin eskaera hori eskaintzak jasotzeko aurrez adierazitako epea bukatu baino gutxienez zortzi egun lehenago egiten badute.

Bi fasetan bidali ahal izango dira eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez; lehenik eta behin, eskaintzen hatz-marka elektronikoa transmitituko da, eta, horren bidez, eskaintza ondorio guztietarako aurkeztu dela ulertuko da; eta, ondoren, eskaintza bera, gehienez ere 24 orduko epean. Bigarren

12. PRESENTACIÓN DE OFERTAS

Los pliegos técnicos y las cláusulas administrativas particulares, así como la documentación técnica si hubiera, podrá ser examinado en el Perfil del Contratante del Ayuntamiento de Orio y en la Plataforma de Contratación de Euskadi

Para contactar con la unidad de contratación dirigirse a:

UNIDAD DE CONTRATACIÓN

Calle Aritzaga, 15 – 20810 Orio
Tel: 943 830346
E-maila: gizartebulegoa@orio.eus
Perfil del contratante:
http://www.orio.eus

La presentación de proposiciones se llevará a cabo utilizando exclusivamente medios electrónicos, de conformidad con los requisitos establecidos en la Disposición Adicional decimoquinta de la LCSP, durante el plazo de QUINCE (15) DÍAS NATURALES, contados a partir del siguiente a aquel en que aparezca el referido anuncio en el Perfil del Contratante del Ayuntamiento de Orio.

Si el último día del plazo coincidiera en sábado, domingo o festivo, se trasladará al día siguiente hábil.

Las proposiciones deberán presentarse redactadas en cualquiera de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco

Cada persona licitadora no podrá presentar más de una proposición. No se podrá presentar ninguna propuesta en unión temporal con otros si se ha efectuado individualmente, o figurar en más de una unión temporal.

La información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria que, en su caso, soliciten los licitadores será facilitada en el plazo de seis días antes de la fecha límite fijada para la recepción de proposiciones, siempre que la solicitud haya sido realizada al menos ocho días antes del

bidalketa hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratu egin dela ulertuko da.

Zer da eskaintzaren aztarna elektronikoa? Datu multzo bat. Bere sortze-prozesuak bermatzen du datuok argi eta garbi lotzen direla berezko eskaintzaren edukiarekin. Bestalde, aukera ematen du eskaintzaren edukian egindako aldaketak hautemateko, eta haren osotasuna bermatzen du. Espedienteari erantsi beharreko dokumentuen kopia elektronikoek administrazio-prozedura erkidearen arloan indarrean dagoen legerian horretarako ezarritakoa bete beharko dute, eta bertan ezarritako ondorioak ordeztu beharko dituzte.

PROPOSAMENEN EDUKIA:

Enpresa lizitatzaileek HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO aurkeztu beharko dituzte (A, B eta C).

1. "**A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA**" deituko da, eta honako hauek jasoko ditu:

    a) Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB). SPKLren 140. eta 141. artikuluetan aurreikusiarekin bat, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, **I. Eranskinean** jasotako jarraibideen arabera beterik, eta lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta eta han adierazitako formulario eredura egokituta.

Enpresa lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimena eta bitartekoak baliatzen dituenean, horietako bakoitzeko EKAB bat aurkeztu beharko da.

    b) Desgaitasun kuotak eta berdintasun plana betetzeko erantzukizunpeko adierazpena. 50 langile edo gehiago dituzten enpresek konpromisoa hartu behar dute bere langileek %2a gutxienez desgaitasuna duten pertsonak izateko. 50 langile edo gehiago dituzten enpresek konpromisoa hartu behar dute berdintasun plana edukitzeko eta hura dagokion lan-erregistroan inskribatua

vencimiento del plazo de recepción de las proposiciones señalado anteriormente.

El envío por medios electrónicos de las ofertas podrá hacerse en dos fases, transmitiendo primero la huella electrónica de las ofertas, con cuya recepción se considerará efectuada su presentación a todos los efectos, y después la oferta propiamente dicha en un plazo máximo de 24 horas. De no efectuarse esta segunda remisión en el plazo indicado, se considerará que la oferta ha sido retirada.

Se entiende por huella electrónica de la oferta el conjunto de datos cuyo proceso de generación garantiza que se relacionan de manera inequívoca con el contenido de la oferta propiamente dicha, y que permiten detectar posibles alteraciones del contenido de ésta, garantizando su integridad. Las copias electrónicas de los documentos que deban incorporarse al expediente, deberán cumplir con lo establecido a tal efecto en la legislación vigente en materia de procedimiento administrativo común, sustituyendo los efectos establecidos en la misma.

CONTENIDO DE LAS PROPOSICIONES:

Las empresas licitadoras deberán presentar TRES ARCHIVOS ELECTRÓNICOS (A, B y C).

1. **ARCHIVO ELECTRÓNICO "A" se denominará "CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR"** y contendrá:

a) Documento Europeo Único de Contratación (DEUC). De conformidad con lo previsto en los artículos 140 y 141 de la LCSP se presentará una declaración responsable a cumplimentar conforme a las indicaciones incluidas en el **Anexo I**, firmada por la licitadora o su representante, ajustada al modelo de formulario que allí se indica.

Cuando la empresa licitadora recurra a la solvencia y medios de otras entidades, deberá presentarse un DEUC por cada una de ellas.

izateko. Eskaintza modu independentean prestatu izanaren adierazpena ere erantsi da. (**II. Eranskina**).

c) Aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio. Enpresa bi edo gehiago lizitazio batera aurkezten direnean aldi baterako elkartea sorturik, dokumentu pribatua aurkeztu beharko dute, elkartea osatuko duten enpresen izenak eta zertzeladak eta bakoitzaren partaidetza adierazita. Horiez gain, esleipendun gertatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa bere gain hartzen dutela adierazi beharko dute (SPKLren 69. artikulua eta HAKLEOren 24. artikulua). Agiri hori elkartea osatzen duen enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere EKAB aurkeztu beharko du. Baldintza-agiri honetako **III Eranskinean** jasotzen da aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoaren eredua.

d) Pleguetan adierazten diren zehaztapenen araberako bitartekoak kontratua gauzatzeari atxikitzeko erantzukizunpeko adierazpena. Baldintza-agiri honetako **IV. eranskinean** jasotzen da eredua.

e) Atzerriko lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioko berezitasunak. Atzerriko lizitatzaileek, aurreko a) letrako erantzukizunpeko adierazpenaz gain, ondoren zehazten den dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko dute.

Espainiarrak ez diren enpresa guztiek aurkeztu beharrekoa:

- Edozein ordenatako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren mendean jartzeko adierazpena, kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, hala dagokionean uko eginez lizitatzaileari egoki

b) Declaración responsable para el cumplimiento de las cuotas de discapacidad y el plan de igualdad. Las empresas de 50 o más trabajadores deberán comprometerse a cumplir el requisito de que el 2% de sus empleados sean trabajadores con discapacidad. Las empresas de 50 o más trabajadores, además de lo anterior, deberán comprometerse a cumplir con la obligación de contar con un plan de igualdad inscrito en el registro laboral correspondiente. Se incluye también una declaración de haber preparado la oferta de manera independiente **(Anexo II).**

c) Compromiso de constitución de Unión Temporal de Empresarios, en su caso. Cuando dos o más empresas acudan a una licitación constituyendo una unión temporal, deberán aportar un documento privado indicando los nombres y circunstancias de las empresas que la suscriban, la participación de cada una de ellas, así como que asumen el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal, caso de resultar adjudicatarias (arts. 69 LCSP y 24 RGLCAP). El citado documento deberá estar firmado por quienes tengan la representación de cada una de las empresas componentes de la Unión. En estos casos, cada una de las empresas deberá presentar su DEUC. En el **Anexo III** de este pliego se incorpora el modelo de compromiso de constitución de Unión Temporal de Empresarios.

d) Declaración responsable de adscripción a la ejecución del contrato de los medios personales y materiales que se indican en los pliegos. Se incorpora modelo en el **Anexo IV** al presente pliego.

e) Especialidades en la documentación que han de presentar las licitadoras extranjeras. Las licitadoras extranjeras deberán presentar, además de la declaración responsable a que se

dakiokeen atzerriko jurisdikzio foruari (SPKLren 140.1 f) artikulua).

Europar Batasunaren kide edo Europar Espazio Bakarrari buruzko Akordioaren sinatzaile ez diren estatuetako enpresek honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresak egoitza duen lekuan Espainiak duen Diplomaziako Misio Iraunkorrak edo Kontsuletxeko Bulegoak emandako txostena, eta bertan jasota geldituko da, enpresak aurrez frogatuta betiere, tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoren batean izena emanda dagoela edo, bestela, tokiko trafikoan ohikotasunez aritzen dela kontratuaren xede diren jardueren esparruan.

- Elkarrekikotasun txostena, SPKLren 68. artikuluak aipatua, non eta ez diren erregulazio harmonizatupeko kontratuak, zeren eta horrelakoetan txosten horren ordez Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo Ekonomia Ministerioaren Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiaren txostena beharko baita, Merkataritzaren Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren estatu sinatzaile izaerari buruzkoa. Esleipendun enpresa, kasu horretan, Espainian ireki beharko du sukurtsala, eta ordezkariak eta boteredunak izendatu beraien operazioetarako, eta Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko da.

2.- Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute, lizitatzaileek, erantzukizunpeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazi duten baldintzei buruz. Lizitatzaileak behar besteko epea izango du eskatutako dokumentazioa aurkezteko.

Lizitatzaileak dokumentazioa aurkeztu beharko du epe egoki batean; dena dela, epe hori ezingo da 10 egun baliodunetik gorakoa izan errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekerimendua ez bada behar bezala betetzen aipatu epean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.

refiere la letra a) anterior, la documentación específica que a continuación se detalla.

Todas las empresas no españolas deben aportar:

- Declaración de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales Españoles de cualquier orden para todas las incidencias que, de modo directo o indirecto, pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder a la licitadora (art.140.1 f) de la LCSP).

Las empresas de Estados que no sean miembros de la Unión Europea o signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Único Europeo deberán aportar, además:

- Informe expedido por la Misión Diplomática Permanente u Oficina Consular de España del lugar del domicilio de la empresa, en el que se haga constar, previa acreditación por la empresa, que figura inscrita en el registro local profesional, comercial o análogo o, en su defecto que actúa con habitualidad en el tráfico local en el ámbito de las actividades a las que se extiende el objeto del contrato.

- Informe de reciprocidad, al que se refiere el artículo 68 de la LCSP, salvo que se trate de contratos sujetos a regulación armonizada, en cuyo caso se sustituirá por un informe de la Misión Diplomática Permanente o de la Secretaría General de Comercio Exterior del Ministerio de Economía sobre la condición de Estado signatario del Acuerdo sobre Contratación Pública de la Organización Mundial de Comercio. La empresa adjudicataria, en este caso, deberá abrir sucursal en España con designación de apoderados y representantes para sus operaciones, y deberán inscribirse en el Registro Mercantil.

2.- El órgano de contratación o la mesa de contratación podrán, en cualquier momento, solicitar la justificación documental del cumplimiento de las condiciones sobre las que las

2. **“B” ARTXIBO ELEKTRONIKOA azpititulu hau izango du: “ESKAINTZA TEKNIKOA“.** Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak: Plegu hauetako 11.2. klausulan adierazitako adjudikazio-irizpideak betetzen direla egiaztatzeko agiriak.

Plegu hauetan adierazitako adjudikazio irizpideen arabera, eskaintzaren puntuak baloratzeko beharrezko iruditzen zaion dokumentazio guztia sartuko du lizitatzaileak.

Artxibo horretan ez da inondik ere sartuko ez proposamen ekonomikoa ez eta automatikoki kuantifikatu daitezkeen adjudikazio-irizpideei buruzko beste daturik ere; horiek guztiak “C” artxiboan sartuko dira. Datu horietako edozein “B” artxiboan sartuz gero, eskaintza kanporatu egingo da, prozesuaren objektibotasuna eta inpartzialtasuna jokoan jartzean.

3. **“C” ARTXIBO ELEKTRONIKOAk azpititulu hau izango du: “PROPOSAMEN EKONOMIKOA“.** Hona hemen “C” artxiboan aurkeztu beharreko agiriak:

Kopuruetan edo portzentajeetan baloratzekoa den irizpideari buruzko eskaintza ekonomikoa sartuko da, hain zuzen, plegu honetako 11.1. atalean adierazitakoa. Plegu hauen **V eranskineko** ereduaren araberako eskaintza ekonomikoa aurkeztuko da.

Artxibo horretan ez da inondik ere sartuko balio-iritzi baten bidez baloratzekoak diren adjudikazio-irizpideei buruzko daturik (formula bidez ebaluatzeko ez dena); horiek guztiak “B” artxiboan sartuko dira.

Datu horietako edozein "C" artxiboan sartzeak dokumentu horiek ez baloratzea ekarriko du, eta, beraz, automatikoki kuantifika daitezkeen esleipen-irizpideei dagozkien puntuak baino ez zaizkie esleituko.

licitadoras hubieran declarado responsablemente su cumplimiento.

La licitadora deberá presentar la documentación requerida en un plazo suficiente que no podrá ser superior a 10 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la recepción del requerimiento. De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que la licitadora ha retirado su oferta y será excluida del procedimiento.

2. **ARCHIVO ELECTRÓNICO “B” se denominará “OFERTA TÉCNICA”** y contendrá los siguientes documentos: Documentos que acrediten el cumplimiento de los criterios de adjudicación, señalados en el apartado 11.2. de este pliego

Se incluirá toda la documentación que la empresa licitadora considere necesaria para valorar los distintos aspectos de la oferta según los criterios de adjudicación citados en este pliego.

En ningún caso deben incluirse el presente archivo en la proposición económica o cualesquiera otros datos correspondientes a criterios de adjudicación cuantificables de forma automática y que deben incluirse en el archivo “C”. La inclusión de cualquiera de estos datos en el archivo "B" supondrá la exclusión de la oferta al poner en juego la objetividad e imparcialidad del proceso.

3. **ARCHIVO ELECTRÓNICO “C” se subtitulará “PROPOSICIÓN ECONÓMICA”** y contendrá los siguientes documentos:

Se incluirá la proposición relativa al criterio valorable en cifras o porcentajes al que se refieren el apartado 11.1. de este pliego. La proposición se ajustará al modelo establecido en el **anexo V** del presente Pliego.

En ningún caso deben incluirse en el presente archivo datos correspondientes a criterios de adjudicación cuya valoración dependa de un juicio

13. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, kontratazio-mahaia bilduko da, eta epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa sailkatuko du ("A" artxiboa). Hori egiteko Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 81. artikulua eta hurrengoak jarraituko dira.

Aurkeztutako dokumentazioa sailkatu ondoren eta, horrelakorik balego, ikusitako akats edo hutsuneak zuzendu eta gero, mahaiak zehaztu egingo du nortzuk izan diren lizitazioan onartuak, baztertuak eta bazterketaren arrazoiak.

Jendaurrekoa ez den egintza horretan, onartutako enpresen "B" artxiboa irekiko da (formula bidez ebaluatzekoak ez diren irizpideak), eta artxiboan sartutako agirien zerrenda irakurriko da. Ondoren, egintza bukatutzat emango da.

Jarraian, "B" artxibo edukia Orioko Udaleko teknikariei bidaliko zaie, formula bidez ebaluatzekoak ez diren adjudikazio-irizpideei buruzko txostena egin dezaten. Hori bai, txosten horrez gain, beste txosten tekniko batzuk ere eskatu ahal izango dira, ebazpen-proposamena egiteko beharrezkoak direla uste izanez gero.

Eskatutako txostenak jaso ondoren Kontratazio-mahaia elkartuko da, jendaurrekoa ez den egintzan, eta txostenak baloratu eta enpresa lizitatzaile bakoitzari emango zaion puntuazioa erabakiko du.

Kontratazio-mahaiak, jendaurreko egintzan elkartuta, enpresa bakoitzak B artxiboan lortutako puntuazioaren emaitza jakinaraziko du. Horrez gain, eskaintza onartuak, baztertuak eta bazterketaren kausa edo arrazoiak zeintzuk izan diren ere adieraziko du. Hori egin ondoren, "C" artxiboak ireki (formula bidez ebaluatzeko irizpideak), eta barruan sartuta dauden eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.

de valor (no evaluable mediante fórmula) y que deberán incluirse en el archivo "B".

La inclusión de cualquiera de dichos datos en el archivo "C" supondrá la no valoración de dichos documentos, por lo que solamente se les asignarán los puntos correspondientes a los criterios de adjudicación cuantificables de forma automática.

13. CALIFICACIÓN DE DOCUMENTOS, SELECCIÓN DE EMPRESAS Y APERTURA DE PROPOSICIONES

Vencido el plazo de presentación de proposiciones, se procederá a clasificar la documentación recibida en tiempo y forma (archivo "A"), procediendo, para ello, como se señala en los artículos 81 y siguientes del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

Una vez calificada la documentación presentada, y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones observados, se procederá al pronunciamiento expreso sobre los admitidos a la licitación, los rechazados y sobre las causas de su rechazo.

En el acto no público se procederá a la apertura del archivo "B" (Criterios no cuantificables por fórmula) de las empresas licitadoras admitidas, dando lectura a la relación de los documentos aportados. A continuación, se dará por concluido el acto celebrado.

Posteriormente se remitirá el contenido de los archivos "B" para que el personal técnico municipal, emita informe en relación con los criterios de adjudicación no evaluables mediante fórmula, sin perjuicio de poder solicitar cuantos informes técnicos se estimen necesarios a los efectos de formular su propuesta de resolución.

Recibidos los informes solicitados se constituirá la Mesa de Contratación, en acto no público, y valorará los informes y decidirá sobre la puntuación a asignar a cada empresa licitadora.

La Mesa de Contratación, reunida en acto público, comunicará el resultado de la puntuación obtenida

